

TRAVAILLER / COMMERCE / ENTREPRENDRE LAN EGIN / SALEROSI / EGIN TRIBALHAR / COMERÇAR / ENTERPRÉNER



Une économie locale au service
de l'emploi.

Enplegua, soldatapekoa bezainbat soldatarik gabekoa ere, gure kezken muinean kokatua da, jakinez Baionan langabezia tasa Euskal Hirigunearen gaineratikoarena baino handiagoa dela eta nahi badugu enplegu bat eskuratzea jendarteratzeko eta elkarbizitzarako altxaprima nagusietakoa zinez bilakatzea, « kopuruaren » politikaz harago joan behar dugu. Horretarako, aspektu « kualitatiboagoetan » ekin behar dugu. Hauen artean prekaritatea, usu kualifikazio eza edo eskasari lotua, bilakaera tekniko eta teknologikoak, besteak beste, eragin langileen deskalifikazioa, lan baldintzei lotu arrisku psikosozialak, etab.

Lurraldeko eragile guziekin partaidetzan, eta bereziki eragile ekonomikoekin, enpleguaren bilakaera aitzinetik ikusteko politika handinahia plantan ezarri nahi dugu, Euskal Hirigunearen mailan. Gorago aipatu aspektu kualitatiboak kontutan hartuko ditu politika honek. Trantsizio ekologikoari bai eta lurraldearen bilakaera sozio-demografikoari, besteak beste biztanleriaren zahartzea, lotu mehatxuak eta aukerak bereganatuko ditu ere.

Gure proposamenak:

a. Denak enplegu bat lortzen lagundu lurraldean

Enplegu bat atzemateko zailtasunez gain, bilakaera tekniko eta teknologikoen bizkortzeak lan mundua gero eta gehiago inarrostean du. Herriko etxearen lehentasunetan sartuko dugu enplegu bat atzematearena, hurbileko laguntza bat ekarri herritar bakoitzari.

- « Aurreikusi enpleguen eta gaitasunen kudeaketa » bat plantan ezarri, hunkituak diren eragile desberdinekin partaidetzan (ekonomia alorreko ganberak, sindikatuak, enpresak...), enplegu eta gaitasun gaiak hobeki aztertzeke gaur egungo eta gertatu beharreko nahasmenduen aurrean (teknologia, sozial, ingurumen... arlokoak) eta ekintza publikoak norabidetzeko.
- Arreta berezia ekarri langabeziak gehiago hunkitzen dituen Baiona GIP DSU auzotegiei, Jendarterako eta Enplegurako Tokiko Planari eskaini baliabideak azkartuz, besteak beste eta zero epe luzeko langabetu Lurraldea sortuz, Baiona Gainaldeetan.
- Laguntza eta manatze publikoak, ingurumen arloko irizpideez gain, irizpide sozialen arabera (jendarteratzea, tokiko erroztatzea...) aplikatu.
- Herriko etxeko langileen lan baldintzak hobetu zerbitzuen arteko koordinazioa, maila gorenera ekarri, barne ibilbideak balioan ezarriz, mugikortasunei eta langileek lan antolaketan duten inplikazioari lehentasuna eman.

b. Euskal Herriko ekosistema sostengatu eta kooperazio praktikei lehentasuna eman.

Bizi ekonomikoko eragile guztiak -enpresak, eskulangileak, merkataria, osasuneko lanbide liberalak, Ekonomia Sozial eta Elkarkideko eragileak (ESE), elkarteak – bildu nahi ditugu lurralde proiektu kolektibo baten arkitektoak bilaka daitezzen. Tokiko eragile hauen aniztasunak eta Hego Euskal Herriarekin, besteak beste, burutu lankidetzek perspektiba ederrak eskaintzen dituzte.

- Sorkuntza esparru partekatua osatu Gaskoinen plazan, proiektu sortzaile, numeriko, artistikoak garatzeko eta apendizgoa laguntzeko, Baiona Gainaldeetako gazteei bereziki zuzendua izateko, irekiko den ESE gunearen baitan.
- Helburu ekonomikorako lur funtsaren palanka erabili biztanleriaren bilakaera demografikoa eta honen beharrei egokiak diren aktibitate jasangarriak sustatzeko.
- Herritar mugimendua berriro jardura ekonomikoaren norabidetze hautuei buruz (HTP, LAE eta inkesta publikoak) jadanik dauden kontzertazio tresnen inguruan.
- Eusko, tokiko monetaren eta beste tokiko garapen dispositiboaren erabilpena sostengatu.
- Tokiko finantza eta ekonomia arloko eragile, jendarte zibila eta tokiko kolektibitateen artean, Ipar Euskal Herriko trantsizio ekonomikoa, ekologikoa eta soziala laguntzeko partekatu gobernantza kolezial eta gardeneko finantzatzeko tresnen sortzea aztertu.

c. Biztanleen beharretatik gertu diren hurbileko merkataritza jardura aniztu eta errotu.

Aktibitate komertziala hiriko auzotegi guztietan berronkatu, besteak beste auzotegi berrien garapena jarraituz eta eguneroko beharrei erantzuten dieten zerbitzu eta saltegi independenteen plantatzeari lehentasuna eman. Nahi dugu Baionako merkataritza eta eskulangintza aktibitatea biztanleentzat funtsezko zerbitzu eskuragarria eta Ipar Euskal Herriko ekosistema ekonomikoaren osagaia izan dadin, erakargarritasun turistikoari bakarrik zuzendua izan ez dadin gehiago. Hainbat palanka badaude horretarako:

- Saltegi independente eta hurbileko zerbitzuen garapena lagundu hiriko auzotegi guztietan, jendeen plantatzea, trebetasunen transmisioa eta areto egokien eskuragarritasuna erraztuz.
- Herriko alokanteen salmenta edo alokatzea edo EPFL-en bidezko irizpide zorrotzak finkatu.
- Herriko Etxeak 2023an bozkatu baina sekula erabili ez duen komertzioak erosteko lehentasun eskubidea erabili eta honen hedadura zabaltzeko.
- HTP-ak baimendu zonatze ahalak maila gorenean ustiatu.
- Eremu publikoaren okupatzeko ordainsariaren prezioaren emendatzea espermentatu, zenbait jendarte eta ingurumen arloko irizpideren arabera.
- Lurraldearen beharrei erantzuten dieten saltegi berrien plantatzea lagundu, areto hutsen aldi bateko eskuragarritasuna eskainiz.

d. Gure ehun ekonomikoa gertatuko diren krisiei prestatu.

Berrerabilpenak eta konpontzeak deslokalizatzen ahal ez den aktibitate ekonomikoa sortzen dute eta trantsizio ekologikoko funtsezko osagaiak dira; azkarki sostengatuko ditugu. Energetiko arloan, EHE-k beranta hartu du Klima Planeko helburuei begira, gure mendekotasun energetikoak ahultzen gaituelarik. Energia deskarbonatuaren ekoizpenaz harago, etekinak multinazional handi batzuek bahitzen dituzten eredu energetiko batetik, irabaziak lurraldearen onurako erabiliak diren herritar energia berriztagarri batera buruz bihurtzean datza ere erronka.

- Hego Akitaniar eraikin xuhurraren ituneko printzipioak segitu eta eraikuntza materialen sailkapen eta berrerabiltzearen izari aldaketa laguntzeko.
- San Frederikon, ekonomia zirkularrean aditua den aktibitate gune bat plantatu Baionan, EHE-k eta Bil Ta Garbik garatu berrerabiltze proiektuekin loturik.
- Abian ezarri Mugiezin Energetiko Eskema nagusia laster bururatu eta lehentasunez haurtzaindegi eta eskolen zaharberritze termiko eta energetikoa hasi.
- Bizitegia eta energiaren Etxearen eta HOBETU dispositiboaren baliabideak azkartu familia pobreenak eta saltegiak haien zaharberritze termiko eta energetikorako segitzeko eta laguntzeko.
- Merkatal gunekako kontsumo apaltze helburu kolektiboak finkatu merkatariekin eta energia aurrezpen arloko araudien zinezko aplikazio lasterra finkatzeko.
- Tokiko energia berriztagarri ekoizle herritarrak eta lurralde osoko trantsizio energetikorako egokitasunaren arabera gogoetatu autokontsumo indibidual eta kolektiboak sostengatu.

e. Baionako portuko industria aktibitatea sostengatu.

1000 enplegu zuzen eta zeharkako inplikatzeko Baionako portuak. Kolektibitateek inbestizamendu garrantzitsuak egin badituzte ere, haren bizkortasun ekonomikoa zalantzazkoa da. Haren aktibitate industriala sostengatzea eta Ipar Euskal Herriko ekosistema ekonomikoan integratzea proposatzen dugu, lurraldearen zerbitzuko gobernantza publiko pean egonaraziz. Arreta berezia ekarriko diogu ere tokiko eragile kopuru handi bat sarrarazteari.

- Partaidetza bat finkatu portuko sozietatearekin datu eta zerbitzu trukaketa lehenesteko eta ingurumen arloko jarraipena hobetzeko.
- Portuko lur funts ekonomikoaren ustiatzea sostengatu, produkzio aktibitatea artifizializatu gabe sortzeko gisan.
- Aktibitate ekonomikoa interes kolektibokoa izatea zaindu, hiru xantier-en bidez bereziki: ekologia industriala, deskarbonatzea, energia berriztagarriak.
- Biztanleriarekin hitzartu garapena bermatu, kutsadura gaiaren inguruan besteak beste.